

GARIZUMAKO IV. IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko Jauna, zure Hitza gizon eginik,
miragarriri adiskidetu zenituen gizon-emakume guztiak Zeurekin;
egizu, kristau herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai,
presta dadila Pazko jaietarako.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Kro 36, 14-16. 19-23

*Jaunaren haserrea eta errukia agertzen dira,
herriaren erbeste eta askatasunaren bitartez.*

Kroniken liburutik

Egun haietan, apaiz nagusi guztiek eta herriak gaiztakeria asko egin zuten atzerrien zantarkeria guztien antzera, eta zikindu egin zuten Jaunak Jerusalemene Beretzat sagaratutako etxea. Jaunak, haien gurasoen Jaungoikoak, albisteak bidali zizkien behin eta berriz bere mezulariekin, bere herriaz eta bere bizi lekuaz errukiturik. Baina haiek, Jaungoikoaren mezulariak isekatu, Haren hitza gutxietsi eta Haren profetak irriz hartu zituzten; eta salbabiderik ez izateraino piztu zen Jaungoikoaren haserrea bere herriaren aurka.

Orduan kaldearrek su eman zioten Jaungoikoaren etxeari, bota zituzten Jerusalemgo harresiak eta sutu jauregiak, eta haien gauza eder guztiak erabat hondatu zituzten. Ezpatari ihes egin zioten guztiak Babiloniara eraman zituzten gatibu; eta han egon ziren erregearen eta haren semeen morroi, persiarrak agintzen jarri arte; horrela bete zen Jeremias profetaren ahoz esandakoa: «Lurraldeak, bere larunbat legea ordaindu arte, atsedean hartuko du hondamen aldiko egun guztietan, hirurogeitamar urte bete arte».

Persiako errege Ziroren lehen urtean, Jeremiasen ahoz Jaunak esana bete zedin, Jaunak Persiako errege Ziroren espiritua piztu zuen eta agindu hau zabal erazi zuen Zirok, hitzez eta idatziz, bere erreinu osoan: «Honela dio Persiako errege Zirok: "Lurreko erreinu guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jaungoikoak, eta Berari etxe bat eraikitzeko agindu dit Judako Jerusalemene. Zuen artean Haren herriko direnek izan bezate beren Jaungoikoa berekin, eta igo bitez"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 136, 1-2. 3. 4-5. 6

**R/. Nire mihia ahosabaian itsatsi bedi,
zutaz oroit ez banendi.**

Babiloniako ibai ertzean negar egitera eseri ginen,
Sionez oroitu baikinena.
Lurralde hartako saratsetatik,
utzi genituen kitarak zintzilik. R/.

Atxilotuta eraman gintuztenek otoi zegiguten abesteko,
nahigabetzen gintuztenek, alai egoteko:
«Abestu Siongo eresi batzuk, guk entzuteko.» R/.

Nola guk abestu Jaunaren eresia
hemen atzerrian?
Jerusalen, zutaz ahaztu banendi,
nire eskua ihartua bedi. R/.

Nire mihia ahosabaian itsatsi bedi,
zutaz oroit ez banendi;
niretzat pozbiderik bikainena,
Jerusalen ez bada. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 2, 4-10

*Gure hutsegiteengatik hilda geundenok,
onginahi hutsez salbatuak gaude.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak maitasun haundiz maite izan gaituelako, gure hutsegiteengatik hilda geundenok Kristorekin batean bizierazi gintuen—onginahi hutsez salbatuak zaudete—; Kristorekin batean berpiztu gaitu, eta Harekin batean zeruetan eser erazi; honela, Jesu Kristorengan guretzat duen maitasunaren bidez, bere graziaren aberastasun harrigarria agertu nahi izan die geroko gizaldiei.

Izan ere, onginahi hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik; Jaungoikoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harro ez dadin.

Jainkoak eginak gara, Berak sortu gaitu Kristo Jesusengan, Jainkoak alde zurretik nahi izan zituen egintza onetan ibil gaitezen.

EBANJELIOA: Jn 3, 14-21

Ebanjelio aurreko txatala: Jn 3, 16

V/. Hain maite izan baitu Jaungoikoak mundua,
bere Seme bakarra eman dio;
Hari sinesten dionik inor gal ez dadin,
baizik eta betiko bizia izan dezan.

*Jaungoikoak bere Semea bidali du,
Haren bitartez mundua salba dadin.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zion Nikodemori:
«Moisesek basamortuan sugea altxa zuen bezala,
hala altxa beharra da Gizonaren Semea;
sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan.
Hain maite izan baitu Jaungoikoak mundua,
bere Seme bakarra eman dio;
Hari sinesten dionik inor gal ez dadin,
baizik eta betiko bizia izan dezan.
Jaungoikoak ez baitu bere Semea,

mundua galtzera bidali;
 baizik eta Haren bitartez mundua salba dadin.
 Hari sinesten dionak, ez du auzirik izango;
 sinesten ez dionarentzat, berriz,
 erabakia dago auzia,
 Jaungoikoaren Seme bakarraren izenean
 sinetsi ez duelako.
 Honetan dago auzia:
 etorri da argia lurrera,
 eta gizakiek maiteago izan dute iluna argia baino;
 okerrak baitziren haien egiteak. Izan ere, gaizki egiten duenak,
 gorrotoa dio argiari, eta ez dator argitara,
 bere egiteek salatuko duten beldurrez.
 Egia betetzen duena, berriz, argitara dator,
 haren egiteak ager daitezen,
 Jaungoikoak nahi bezala eginak baitira».

Oparigaien gainekoa

Jauna, pozik egiten dizugu
 betiko sendagarri dugun eskaintza,
 eta apalik eskatzen:
 opari hau begirunez ospa dezagula
 eta munduaren salbamenerako eskaini.
 Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, zuk argitzem dituzu
 mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
 argitu zeure graziaren distiraz gure gogo-bihotzak,
 benetan ezagutu
 eta maitasun haundienaz maita zaitzagun.
 Jesu Kristo.